

## Urdaneta Jeneralak, sustriak Legorretan

*Egunkaria*, 1993-11-23: 2.

Venezuelarrek Madrilen duten Enbaxadore jaunak Legorretako Udaletxera deitu zuen orain egun batzuk, herria bisitatu nahi zuela adierazteko. Udaletxekoek apur bat urduritu ziren, ez baita herrira honelako gizon ospetsurik egunero agertzen. Egia da Urdanetarren jatorria bertakoa dela: Oria ibaiari lotuta daudela inguruko Berostegi, Korate, Guadalupe eta *Urdaneta*; badela izan izen honetako baserririk ere, "Urdanetazpikoa" eta "Urdanetagoikoa", eta baduela leinu honek armarria ere, zuhaitz, basurde, gaztelu eta guzti. Izen honekin ezagunak direla Ameriketara, bai Txilen eta baita Venezuelara ere batez ere hau da osperik haundiena lortu duena. Rafael, Bolivar Askatzailearen jeneraletan haundienetako izana. Hau zen, beraz, Venezuelako enbaxadore jaunak egin nahi duen bisitaren zentzua. Kasu hauetan kazetariak dira lehen mugitzen direnak, eta hauetako batek deitu dit jeneral honen berriak jakin nahian. Neuk, egia esan, Urdaneta jenerala Independentziako borrokan Bolivarrekin egin zuela banekien, eta Venezuelara herritar bat balitz bezala ezaguna izanik, ez dut telefono deiarekin unetxo honetan besterik buruan. Aurkitu bai aise: Maracaibon jaio zen 1788an Urdaneta Barrenetxea batengandik, eta Espainiagandik hiri honen independentzia erabaki zuena izan zen, beti Bolivarren ondoan, eta hau erabaki eta gero, 1842ean, honen gorpua Kolonbiako Santa Martatik Caracasera ekarri eta harrera zoragarria egin zioen tropen buru izan zen, eta Parisen hil zen. Espainiako Venezuelaren askatasuna sinatu zezan zihoan Enbaxada Ofizialaren buru zela, bidean bezala, 1845an. Hara laburki Legorretako jatorria duen Rafael Urdaneta jenerala aipatu.